

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

12. astea (2026ko martxoaren 16tik 22ra)


Gripearen eta bronkiolitisaren tasak oinarritzko mailan (inter epidemikoa) mantentzen dira. COVID-19aren tasak baxua izaten jarraitzen du.

- *Aste honek jaiegun bat dauka, eta honek eragin zuzena du datuen baliozkotasunean, bereziki Lehen Mailako Arretatik jasotako datuetan.*
- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 216,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (302,2/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen, bronkiolitisaren eta COVID-19aren tasak baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 21 lagin jagoleen % 61,9 baieztatu da, gripe-birusik, ABSik edo SARS-CoV-2rik detektatu ez direlarik.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 12,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,9/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA- eta bronkiolitis- (< 2 urte) tasak eta larrialdietako gripe-sindromearen tasa oinarritzko intentsitate mailan (balio inter epidemikoa) mantentzen dira.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 28 ABS, 18 SARS-CoV-2 eta 13 gripe-birus erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 216,2 kasukoa izan da (302,2/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 159,3/100.000 izan da Araban, 210,7/100.000 Bizkaian eta 251,2/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 2229,0 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 urtekoen eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1066,4 eta 248,6 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 81,6 kasukoa izan da (113,8/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI guztietan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazioa ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 12. astea	Tasa 11. astea
Arabako ESI	171,0	246,4
Arabar Errioxako ESI	339,6	390,6
Barakaldo-Sestaoko ESI	197,9	262,3
Barrualde-Galdakaoko ESI	234,2	285,2
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	230,0	314,0
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	180,2	264,3
Uribeko ESI	161,5	253,2
Bidasoako ESI	273,6	354,5
Debararrenako ESI	225,6	324,5
Debagoienako ESI	155,0	300,8
Donostialdeako ESI	243,7	344,4
Goierri-Urola Garaia ESI	247,6	406,1
Tolosaldeako ESI	325,8	412,3

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasa 1,0 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (1,4/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) 100.000 biztanleko 176,8 kasukoa izan da (212,9/100.000 aurreko astean) eta COVID-19arena baxu mantentzen da 100.000 biztanleko 0,4 kasutan (0,7/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 21 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 61,9 baieztatu dira. Ez da gripe-birusik, ABSik edo SARS-COV-2rik atzeman, baina bai 6 errinobirus eta 4 metapneumobirus.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna % 0,0an kokatu da aste honetan (% 0,0 aurreko astean), ABSrena (% 4,8 aurreko astean) eta SARS-CoV-2arena (% 2,4 aurreko astean) bezalaxe.


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE

	12. astea		11. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	0	0,0	382	29,2
SARS-CoV-2	0	0,0	1	2,4	19	1,5
ABS	0	0,0	2	4,8	95	7,3
Metaneumobirus	4	19,0	7	16,7	40	3,1
Parainfluenza	1	4,8	5	11,9	47	3,6
Adenobirus	0	0,0	2	4,8	18	1,4
Errinobirus	6	28,6	8	19,0	237	18,1
Urtaroko CoV	1	4,8	3	7,1	85	6,5
Enterobirus	2	9,5	2	4,8	12	0,9

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorritzen direnak. AIAL tasa 12,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,9/100.000 aurreko astean), 12,3/100.000 gizonetan eta 12,6/100.000 emakumeetan.




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 58,1 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 39,5 eta 10,0 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 0,0koa izan da 100.000 biztanleko (0,1/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 0,4koa 100.000 biztanleko (0,6/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,0 kasukoa 100.000 biztanleko (0,1/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,5koa izan da (% 0,9 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 1,4an kokatu da aste honetan (% 2,3 aurreko astean) eta ABSrena % 4,4an (% 12,1 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	12. astea		11. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	202	0,5	216	0,9	7106	1,5
Influenza	212	1,4	222	2,3	7342	22,6
ABS	181	4,4	207	12,1	6641	16,2

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoen arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuoak (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbatesteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIAren zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gainditu da, 2026/08 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz. Epidemian intentsitate maila baxuko gailurra neurtu da.


**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Gripe-sindromearen, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuen arabera, atalase epidemikoa 2025/42 astean gaingitu da, 2026/05 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz. Kasu honetan, epidemiaren intentsitatea maila alturaino heldu da.


**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Azkenik, 2 urtetik beherakoen lehen mailako arretako bronkiolitisaren diagnostikoei dagokienez, atalase epidemikoa 2025/48 astean gaingitu da, 2026/05 astean gaur egun mantentzen den oinarrizko mailara bueltatuz. Epidemian, intentsitatea ez da maila baxutik pasa.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 28 ABS, 18 SARS-CoV-2 eta 13 gripe-birus detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 13 gripe-birusetatik, 6 A motakoak izan dira, 3 A(H3) y 4 A(H1)pdm09. 2025/40 astetik 8695 detekzio erregistratu dira, 8653 (% 99,5) A motakoak eta 45 (% 0,5) B motakoak. Azpitipatutako A motako 4596 birusetatik, 2744 (% 59,7) A(H3) eta 1852 (% 40,3) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2026ko martxoak 25

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza